

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Gure bezeroak asko ikasi eta lana egin beharko duten pertsonak izango dira eta horretarako energia beharko dute. Energia hori lortzeko, kaltzioa, bitaminak, karbohidratoak beharrezkoak dira. Salduko ditugun produktuak, osasuntsuak eta substantzia hauek edukiz gain, ekologikoak izango dira.

Gure produktua umeei eta nerabeei zuzenduta dago. Hazkuntza prozesuan eta bere bizitza bideratzeko adinean daudelako, bizitza osasuntsu eta ohitura onak lortzeko. Honek ez du esan nahi helduek ezin dutela gure produktuak kontsumitu. Handiek ohitura onak hartzen badute, bere semeek ere hartuko dute eta horrela kate bat eginez. Gure produktuak leku publikoetan jarriko ditugu, hau da, jende asko dauden zonaldetan. Horrek esan nahi du, edozeinek kontsumitu dezaketela. Beraz, gure produktua oso praktikoa izango da beraientzako.

Beste makina saltzaileekin alderatuz, gure makina osasungarria izateaz gain, bidezko merkataritza bultzatzen du. Produktuei begira, besteen produktuak hasieran asetu egin dezakete baina ez da iraunkorra. Gureek berriz, gehiago asetzen dute eta hau, iraunkorragoa da.

Gurasoek egunero merienda prestatu beharrean eta beren semeen osasuna zaintzeko kezka eduki beharrean, guk proportzionatuko diegu beraien seme-alaben osasuna gure makinaren bidez.

Merkatu motari dagokionez, esan dezakegu gure produktua nitxoz osatutako merkatu batean lehia egingo duela. (6-25 bitarteko pertsonen bideratutako produktuak salduz.)